

EBAZPENA, 2026ko UZTAILAREN 10koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITA 2026ko EKAINAREN 23ko EBAZPENA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETA PUBLIKORAKO DEIALDIA EGITEKOA.

Egiaztatu egin dira honako hauek:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- 2026ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez deialdi publikoa egin zen, UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktoreen kontratuak esleitzeko. Deialdi horretan plaza hau agertzen zen: 395 zenbakia duen Soziologia jakintza arloko plaza, PADCL2-D00337-19 kodea duena unibertsitateko barruko gaietarako.

Bigarrena.- Akats bat antzeman da PADCL2-D00337-19 kodedun lanpostuari dagokion epaimahaia izendatzeko ebazpenean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena.- Honela dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 109.2 artikuluan: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- PADCL2-D00337-19 plazari dagokion epaimahaia izendatzeko ebazpenean egindako akatsa zuzentzea, eta honekin batera doan eranskinean jasotakoa izendatzea haren ordezkari.

Bigarrena.- Epaimahai zuzena UPV/EHUren web orrian argitaratzea.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUKo Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioan, 2026ko uztailaren 10a

Izpta.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA

CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS
KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA
IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREA / PROFESOR AYUDANTE DOCTOR

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2026/2027
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	23/06/2026
DEIALDIAREN ZENBAKIA/ORDINAL CONVOCATORIA:	395
LANPOSTU ESPEZIFIKOA/PUESTO ESPECIFICO:	PADCL2 - D00337 - 19
SAILA/DEPARTAMENTO:	Sociología y Trabajo Social / Soziologia eta Gizarte Langintza
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Sociología / Soziologia
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜISTICO:	ELEBIDUNA (EUSKERA/GAZTELANIA) - BILINGUE(EUSKERA/CAST.)
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo Completo de 6 horas. Ayudante Doctor / Arduraldi osoa-6 ordu

Errektore honek, UPVEHUko Estatutueta 35.1 artikuluan (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa; 2011ko otsailaren 24ko EHAA) eta aldi baterako irakasle eta ikertzaileak kontratatze arautegiko 5. artikuluan (2011ko maiatzaren 31ko EHAA) aitortzen zaizkion eskumenak erabiliz, erabaki du honako epaimahai hau izendatzea:

Este Rectorado, en uso de las competencias que tiene conferidas por el artículo 35.1 de los Estatutos de la UPV/EHU aprobados mediante Decreto 17/2011, de 15 de febrero, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 24 de febrero de 2011) y el artículo 5º de la regulación del procedimiento de contratación de personal docente e investigador temporal (BOPV de 31 de mayo de 2011), ha resuelto nombrar la siguiente Comisión de Evaluación:

COMISION DE EVALUACION / EBALUAZIO BATZORDEA		UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD
Titularra /Titular	AMAIA BACIGALUPE DE LA HERA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Titularra /Titular	UNAI MARTIN RONCERO	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Titularra /Titular	VIDAL DIAZ DE RADA IGUZKIZA	Universidad Pública de Navarra
Titularra /Titular	TATIANA EREMENKO	Universidad de Salamanca
Titularra /Titular	ENRIQUE MORALES CORRAL	Universidad de Valladolid
Ordezkoa /Suplente	BEGOÑA ABAD MIGUELEZ	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	CRISTINA LAVIA MARTINEZ	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	EIDER ALCORTA ELORZA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	JULIA SHERSHNEVA ZASTAVNAIA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	LUCILA FINKEL MORGENSTERN	Universidad Complutense de Madrid
Ordezkoa /Suplente	MARIO DOMINGUEZ AMORÓS	Universidad de Barcelona
Ordezkoa /Suplente	Mª ÁNGELES CEA DÁNCONA	Universidad Complutense de Madrid

Izendapen-ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errektore andreari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsua jurisdikzio horretako Bilboko epaitegian, eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da lehiaketa web orrian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Contra la presente resolución de nombramiento cabe la interposición de recurso potestativo de reposición, ante la Sra. Rectora, en el plazo de un mes, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de dicha jurisdicción de Bilbao, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en la página web.

Leioa, 2026-07-10a

Leioa, 10/07/2026